

Holandako Zuzenbide ikasketetako *Problem-based Learning System* delakoa

(The Problem-based Learning System in the Legal Studies in Holland)

IRAETA MUNDUATE, Ion

Zuzenbidean lizentziaduna
Bera-bera 92, 4. eskuina
20009 Donostia
ionbristol@hotmail.es

BIBLID [1137-1951 (2004), 12; 111-114]

Sarrera eguna: 2004.03.30
Onarpen eguna: 2004.05.10

H

urrengo artikuluan, Zuzenbide ikasketen azken maila Holandan burutu duen ikasle batek bertako ikasketa juridikoen ezau-garri nagusien berri ematen digu; hots, zein ikasgai jasotzen dituzten, zein metodo jarraitzen dituzten irakasleek eta, oro har, klaseen nondik norakoak.

Giltza hitzak: Zuzenbidea. Ikasketak. Holanda.

E

n el presente artículo, un estudiante que ha finalizado la carrera de Derecho en Holanda nos explica las principales características que presentan los estudios jurídicos en dicho país: las asignaturas que se imparten, los métodos de enseñanza, y, en definitiva, el desarrollo de las clases.

Palabras clave: Derecho. Estudios. Holanda.

D

ans cet article, un étudiant qui a terminé ses études de Droit en Hollande nous explique les principales caractéristiques que présentent les études juridiques dans ce pays: les matières enseignées, les méthodes d'enseignement, et, en définitive, le déroulement des cours.

Mots clés: Droit. Études. Hollande.



1. Maastricht-eko Unibertsitatea. 2. Elebitasuna. 3. *Problem-based Learning System*. 4. Balorazioa.

1. Maastricht-eko Unibertsitatea

Lehenik eta behin, *Universiteit Maastricht*-ek hirian duen pisua eta hiriarentzat betetzen duen zerbitzua ulertu beharra dago.

Maastricht 100.000 biztanle eskas dituen hiri bat da, jakina denez Holandan kokatua, mendalderantz Belgikarekin, ekialderantz Alemaniarekin, eta hegoalderantz Luxenburgo eta Frantziarekin topo egiten duena. Nolabait esateko, Maastricht Europako bihotz-bihotzean kokatzen da, eta sentimendu hau hirian bertan soma daiteke, eta, zer esanik ez, baita Unibertsitatean ere. Horrela, eta adibide gisa, Belgikan bizi diren irakasle holandarrekin topo egin dut, eta baita belgikarrak izanik ikasketak Alemanian egin, bertan alemaniar emaztea ezagutu, eta biek batera Maastrichten irakasle izaten bukatu dutenak ere.

Maastricht hiri unibertsitario bat da ez bairik gabe. Goian esandakoa kontuan izanda, ez da zaila izango ulertzen Unibertsitateko ikasleen erdia *exchange student* (unibertsitateen arteko akordioen bidez, jatorrizko unibertsitateetatik Maastricht-en kurtso oso bat edo sei hilabetez ikastera datozen ikasle atzerritarra) denik. Beste erdia ikasle erregularrak dira, baina, hauen arteatik, Belgikatik eta batez ere Alemaniatik datozen ikasle mordo bat dago, Maastrichteko Unibertsitatearen prestigioak erakarrita, bertan karrera osoa egiteko asmoa dutenak. Ikasle multzo honi guztiari behar bezalako harrera egiteko, Erresidentzia edo *Guest House* sare bat dago, 700 ikasletik gora jasotzeko prest. Hona hemen Unibertsitateak hiriko jarduera ekonomikoa suspertzen duen pisua.

Maastrichteko Unibertsitatearen azpiegitura eta eskaintzen dituen ekipamenduak ikaragarriak dira. Hirian zehar etengabe ikus daitezke Unibertsitatearen ikurrak dituzten eraikinak; hala nola, fakultateak, liburutegiak, hizkuntza zentroak edo ikasleei laguntzeko elkarteak (*Maastricht Students Network* delakoa, zeinak bidaiak eta antolatutako jarduera ezberdinen berri ematen duen). Ikasleok eskura geneuzkan liburutegiak, ordenagailu gelak, taldeko lanak antolatzeko gelak eta abar, hemengo goi mailako unibertsitate pribatuek ere eskaini ezin dituzten mailakoak dira –ikus www.maastrichtstudents.com, nire ikasle lagun batek sortutako *web-site*-a, oso erakusgarria suerta daitekeena–. Eta ez da ahaztu behar Maastrichteko Unibertsitateak unibertsitate publiko izaten jarraitzen duenik.

2. Elebitasuna

Unibertsitateko ikasle guztiak ikasgaiak holandarrez edo ingelesez jasotzeko aukera daukate. Zehatzago esateko, eskaintzen den asignatura multzoaren artean batzuk ingeles jasotzekoak dira, eta beste batzuk holandarrez. Ikasle atzerritarrok ingelesez ematen ziren ikasgaien arteatik aukeratzeko gurean, noski, bertako ikasleek ingelesez zein holandarrez ematea aukera zezaketean bitartean, norberari komeni zitzaionaren arabera. Hori bai, ingelesez jorratutako asignaturetan, alderdi guztietan erabiltzen zen ingelesa; hots, klaseetan, lanetan zein azterketetan.

Holandarrez ematen ziren ikasgaiak ikasle holandarrez beterik egongo zirela suposatzen dut. Ingelesez egiteko aukera zegoen klaseetan, ordea, sekulako “ikasle nazioartekuntza” gertatzen zen, ikasle holandarrekin batera, frantziarrak, ingelesak, suediarrek, estatubatuarrek, italiarrak, japoniarrak, espainiarrak, mexikarrak, hungariarrak, austriarrak zein kolonbiarrak biltzen baikin. Zenbaitetan, irakasleek onartzen zuten aurkeztu beharreko lanen bat holandarrez entregatzea, baina, beste batzuetan, ez zuten aukera hori ematen, ikasle guztiok egoera bereberetan egon gintzen. Izan ere, ikasle atzerritarro geure jatorrizko hizkuntza erabiltzen baimentzea bezainbeste izango zelan eta, noski, irakaslea ez zegoen horrenbeste hizkuntza maneiatzeko egoeran. Edonola ere, irakasleek ondo baino hobeto maneiatzen zuten ingelesa, maila ikaragarria erakutsiz.

3. *Problem-based Learning System*

Izen hau emten zaio Maastrichteko Unibertsitateko sistemari. Arazoak planteatuz eta horiei konponbide bat ematen saiatuz ikastea da proposatzen den sistema. Irakasleari kasu praktikoa bat aurkeztea dagokio, eta ikaslea alor juridiko horren eguneroko arazo baten aurrean kokatzea. Arazo zehatzak planteatzea eta hauek konpontzea ikasleei dagokie, eta horretarako tresna talde lana da. Beraz, irakaslea bitartekari edo arbitro hutsa baino ez da; alegia, eztabaidaren norabidea gidatu eta, behar denean, argibideak eman behar dituena. Baina ikasleek daukate klasea emateko pisua.

Nola eman dezake ikasleak klasea? Klasea eman aurretik, ikasleari materiala (teoria) eman behar zaio, edo, bestela, materiala bere kabuz liburutegietan edo Interneten aurki dezala eskatu –honen oinarrian irakaslearen lana dago noski; alegia, irakaslearen lana da ikasleari liburutegian behar bezala mugitzen irakastea, Interneten helbide gomendagarriak proposatzea, etab.–. Astean zehar material hori irakurtzea, klaseko kideekin elkartu eta eztabaidatzea, eta klaserako eskatutako betebeharrak burutzea dagokio ikasleari. Honen bidez, zera lortzen du ikasleak: egun

horretan klasean landuko den materia jadanik ezagutzea, eta planteatuko diren arazoei irtenbideak ematen saiatzeko oinarri bat izatea. Puntu honetan, ikasleen arteko komunikazioa berebizikoa da. Horretarako, bloke bakoitza hasten genuen egunean egiten genuen lehenengo gauza, ikasle guztien telefono zein helbideak bilztea eta taldeak egitea zen. Horrela, ikasleei posible zitzaigun klase orduetatik kanpo taldean biltzea.

Hortaz, sistema honek bi gauza galdatzen ditu. Ikaslearen lana eta denbora klase orduetatik kanpo, alde batetik. Ikaslearen parte-hartzea klase orduetan, beste aldetik. Beraz, ikaslearen denbora eta parte-hartzea. Hau gure sisteman ezinezkoa litzateke. Baina *Problem-based Learning System*-aren bidez posible da. Nola? Oso erraza: klase orduak murriztuz eta klaseko kideen kopurua mugatuz. Zehaz dezagun hau.

Maastrichteko Unibertsitateak lau bloketan banatzen du urte akademikoa, eta bakoitzak bi hilabeteko iraupena izaten du (zortzi aste). Lehenengo blokea irailean hasten da, eta urrian bukatzen. Bigarrena azaroan hasten da, eta Eguberrietako etenaren ondoren bukatzen. Hirugarrena urtarrilaren amaieran hasten da, eta martxoren amaieran bukatzen. Laugarrena apirilko Bazkoko oporren ondoren hasten da, eta ekainean bukatzen. Bi hilabetez luzatzen den bloke bakoitzean ikasgai bat burutu behar genuen –bi, ikasle erregularren kasuan–; beraz, orotara lau ikasgai kurso bakoitzeko –zortzi, ikasle erregularren kasuan–. Asignatura bakoitzak pare bat orduko bi klase-egun izaten zituen astean; hau da, lau klase-ordu aste bakoitzeko –zortzi, ikasle erregularren kasuan–. Gainontzeko orduak, ikasleak kome-ni zaion modura antolatzeak dira. Horra hor ikasleek klaseak prestatzeko behar duten denbora. Edonola ere, klase-orduak ez dute han eta hemen funtzio bera. Hemengo klase-orduak ikaslearen zeregin bakarra edo nagusia badira, Maastrichten klase-orduak icebergaren punta baino ez dira; alegia, klase-orduak ikasleak astean zehar egin duen lana erakutsi eta zuzentzeko garaia dira. Ikasleak, beraz, beren kabuz edo taldean lan mordo egin ondoren joaten dira klasera.

Klaseko kideen kopurua oso txikia zen. Ez dut hogeita bi kideetatik gorako klaserik izan. Ikasle multzo handiak zituzten ikasgaiak klase ezberdinetan banatzen zituzten, muga hori gaindi ez zedin. Ikasgelen tamaina ere txikia da, eta ez dute hemengo ikasgelen itxura; alegia, pupitre pila irakaslearen mahaira begira. Maastrichteko ikasgelek mahai borobil bat daukate, eta irakaslea beste ikasle bat izango bailitzan kokatzen da. Horrela, ikaslearen parte-hartzea sustatzea askoz errazagoa da, eta ezkutatzea ere askoz zailagoa, ez baitira “klaseak” ematen, “mintegiak” baizik.

Irakasle bakoitzak askatasuna du, ikasgaiaren beharren arabera, egokien iruditzen zaion lan metodologia aukeratzeko.

Ikasgai guztiak *Problem-based Learning System*-aren espirituari jarraiki ematen badira ere, kasuan kasu irakasle bakoitzak metodo oso ezberdin eta originalak erabiltzen ditu klaseari probetxu gehien ateratzeko eta programari modurik hoberenean egokitzeko. Argi dago Familia Zuzenbidea edo Zuzenbidearen Filosofia bezalako ikasgai ezberdinak ezin direla modu berdinean, teknika berberari jarraituz edo, nolabait esateko, “patroi” bakar bati jarraituz irakatsi. Ikasgai baten-tzat balio duenak ez du zertan beste batentzat egokia izan.

Esaterako, *Philosophy of Law* asignaturan hamasei saio zeuden, eta horietako bakoitza autore zehatz bat (Aristotele, Hobbes, Marx...) edo arazo konkretu bat (*order and conflict, law and the state*, etab.) taxutzera bideratzen zen. Irakasleak, aurreneko egunean bertan, ikasgai osoaren *reader*-a eman zigun; hau da, irakurgai osoa, hala nola, Platonen *Errepublik*a-ren zatiak, Hobbesen *Leviathan*, Rousseuren *Kontratu Soziala*, etab. Irakasleak hiru taldetan banatu gintuen. Batzuk klaseko *guides* edo gidariak izango ziren, eta beren funtzioa saioaren irakurgaitik ideiak edo titularrak ateratzea izango zen. Beste batzuk *critics*-ak ziren, kritikagarrien suerta zitezkeen puntuak aireratu behar zituztenak. Azkenik, *panel*-ek hartu behar zuten parte, gidariek eta kritikariek esandakoa eztabaidatzeko, hauei argibideak zein iritzia eskatzeko eta, azkenik, testuaren hitzetatik gaindi joateko (*go beyond the text*), nolabait autoreak testuan idatzitako hitz eta ideiei esanahi bat emateko. *Panel*-a osatzen zutenen artean *chairman* bat izendatu beharra zegoen, klasearen bozeramailea, zeinak hitza eman, eztabaida gidatu, klaseko kide bakoitzaren ekarpenak irakurri eta klasearen amaieran irakasleari emateko ardura izango baitzuen.

Comparative Law ikasgaiaren beste galdakizun batzuk zeuden. Oso nazionalitate ezberdinetako ikasleak geundela aprobetxatuz, nazionalitate bakoitzeko kideak bildu eta, taldean, bakoitzaren lege sistemari buruzko lan bat prestatzea eta klaseko beste kideen aurrean aurkeztea eskatu zitzaigun, guztiok aniztasun horretaz aberasteko. Kide bakoitzari, europarra ez zen Estatu bateko lege sistemari buruz lan labor bat egitea ere eskatu zitzaigun. Kurtsoa, Estatu ezberdinek Zuzenbide Pribatuko arazoei ematen dizkieten konponbideak aztertzea erdiratu zen; horrela, gai batzuk aukeran jarri (motoristen erantzukizuna motorista ez direnekin gertatutako istripuetatik sortutako kalteengatik, *negotiarum gestio* instituzioa, etab.), eta gai horiei buruz bi Estaturen arteko Zuzenbide konparatua jasoko zuen lan bat prestatzea eta horren aurkezpena egitea eskatu zitzaigun. Espainiar Kode Zibileko artikuluen itzulpenak ere egin genituen.

European Family Law ikasgaiak oso sistematika praktikoa zuen. Giza Eskubideei buruzko Europako Konbentzioko 8. artikulua inguruan

garatu zen kurtsu guztia, *family life* kontzeptutik abiatuz. Estatuaren interbentzioaren mugak zein obligazio positiboak finkatuz, familiaren babes konstituzionalaren eremua argitzen jardun genuen. Familiatik abiatuz erartzen diren esku-bide guztiak eta beren eremuak zehazteko, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia erabili genuen, gai bakoitzari zegozkion sententzia esanguratsuenak irakurri eta klasean esplikatuz. Horrela, nor bere jatorria (gurasoak) ezagutzeko eskubidea, transexualen ezkontzeko eskubidea, haurren eskubideak eta emigratutako familien formatzeko eskubidea bezalako gaiak Europako Auzitegiaren sententziekin jorratu genituen. Ikasleak, normalean, sententzia bat irakurri eta hari buruzko laburpen bat egin behar izaten zuen, ondoren klasean laburki esplikatzeko. Gainera, irakasleak kasuz kasu 8. artikulua urratu zen edo ez erabakitzeke irizpideak ematen zizkigun; hau da, nolabaiteko logika bat, gero sistematikoki kasu bat ebazteko gai izateko.

4. Balorazioa

Agerian gelditzen da, beraz, *Problem-based Learning System*-a eta Euskal Herriko Unibertsitatean eskaintzen den Zuzenbide hezikuntza sistema zeharo ezberdinak direla. Zalantzarik gabe, biek izango dituzte hutsuneak, baina biak oso interesgarriak suerta daitezke heziketa sistema osoago eta eraginkorrago baten bilaketan.

Nire ustez, bi sistemak nahiko eraginkorrak dira, bilatzen duten helburua lortzeari dagokionez behintzat. Hortaz, norbaitek bi sistemetatik egokiena zein iruditzen zaidan galdetuko balit, zera erantzungo nioke: guztia, lortu nahi dituzun helburuen –alegia, ikaslearengandik lortu nahi duzunaren– arabera dagoela. Heziketa teoriko-orokor baten bila bagabiltza, zeinak ikaslearen ezagutzak metatu eta ordenatzea baituen helburu, EHUko sistema hobeki egokitzen zaiola esango nioke. Sistema honen abantaila, ikasleak formatuta eta ezagutza zabalekin amaitzen duela da. Arriskua, materia gehiegi eta orokorregia irakatsi nahi izatean ikasleak “galduta” bukatzea da; nolabait, denetik dakiela, baina benetan ezer ez dakiela konturatzea. Hau bera ere ez da hain txarra, errealitateaz jabetzea baino ez delako; izan ere, hau baita lizentziatu berri baten egoera erreala mundu juridikoan sartzeaz dagoenean.

EHUko sistema teoriko-orokorra bada, *Problem-based Learning System*-a praktiko-zehatza da. Praktikoia diot, eduki teorikoan azterketetarako ikastea beharrean, sententziak irakurtzea, alor juridiko baten arazo praktiko zehatzetan sakontzea, eta hauei buruz lanak, ahozko azterketak edota klasean aurkezpenak egitea bilatzen delako. Horrela, EHUtik gatozen ikasleok benetan txundituta uzten gintuzten gauzak egiten bukatzen genuen; esaterako, Zuzenbide Zibil Konparatua

bezalako ikasgai orokor batean, nire funtsezko lana, abizenen aldaketari buruzko erregulazioan Espainia eta Ingalaterraren arteko Zuzenbide Konparatua aztertzea izan zen. Beraz, lan benetan zehatza, nolabait espezializazioa berekin dakarrena. Ikaslearen ezagutza ez da horren orokorra, eta ikasleak, agian, gauza gutxiago dakizkienaren sentsazioa izan dezake, baina dakizkien gauza txikiak –alegia, espezialitzea lortu duen alor horiek– benetan menperatzen dituela uste du. *Problem-based Learning System*-aren pean, zalantzarik gabe, gauza asko gelditzen dira ikasi eta ukitu gabe, baina, bitartean, ikaslea ikasteko, ulertzeko eta informazioa bilatzeko tresnez jabetu da. Mundu juridikoan mugitzeko ezagutzak edo tresnak izatea, zer ote den komenigarriagoa, hor dago gakoa.